




Debabarrenako 6. Raida



Aurkibidea

1. Aurkezpena.....	3
2. Kokalekua eta informazio praktikoa.....	4
3. Egitaraua.....	4
4. Taldeak eta kategoriak	5
5. Dinamika eta probaren puntuazioa.....	5
6. Informazioa teknikoa.....	6
A. Sekzioak, mapak, distantziak eta desnibelak:	6
B. Proba bereziak:.....	8
C. Beharrezko material:.....	9
D. Transizioak eta logistika:	11
E. Kronometrajea:	11
F. Penalizazioak:	12
G. Anoak:.....	12
H. Roadbooka:	12

1. Aurkezpena

Aurten Debarrena Raideko 6. edizioa izango da. Deban hasi eta amaituko dela proba.

Raida, abentura froga bat da, orientazioa eta gutxienez bi kirol froga izango dituen erresistentzia jarduera dibertigarri bat. Bi kirol proba hauek, normalean, trekking-a eta btt-a dira. Partehartzaileen (bikoteka) erresistentzia eta nabigazioa proban jartzen du, izan ere, mapa eta medio propioak bakarrik erabili ditzakete proba burutzeko. Proba hasieran, partehartzaileei mapak banatzen zaizkie. Mapa hauetan, mugarri ezberdinak daude irudikatuta eta mugarri bakoitzak puntuazio jakin bat dauka. Partehartzaileek ibilbide egokiena aukeratu eta denbora jakin baten barruan ahalik eta mugarri gehienetatik pasatuz ahal den puntu gehien lortzea dute helburu. .

Talde lana, erresistentzia, estrategia, orientazioa eta naturarekiko errespetua dira kirol honen ezaugarriak garrantzitsuenak. Proba, auzo errepide, mendi bide eta bidexka, zelaietan... burutuko da eta Deban hasi eta amaituko da. Ziur gaude partehartzaileak gozatzeko moduko inguruak direla eta proba benetan dibertigarria izango dela.

Bakoitzak bere erritmorra egin ahal duen aktibitatea da, ez baitago puntuazio minimorik eta partehartzaile bakoitzak erabakitzen baitu, bere indarren arabera, zein mugarritik pasa eta zein utzi. Hortaz, proban mendi zaletasuna duen edonorentzat dago pentsatuta. Animatu eta parte hartu!!!



2. Kokalekua eta informazio praktikoa

Deba (Gipuzkoan) izango da proba. Edzoein TAO gunetan aparkatu ahalko dute partehartzaileek. Doakoa izan dadin, partehartzaileen harrera gunetik pasa behar da txartel berezi bat eskuratzeko. Bestela ordaindu egin beharko da.

Ondoren adierazten dira raideko lekuri garrantzitsuenak:



- **Irteera:** Alamedako musika kioskoan
- **Dutxak eta mangera:** Polikiroldegian
- **Bazkaria:** Alamedako paseo estalian
- **Turismoen parkina:** TAO gunetan (Doan. Horretarako txartela partehartzaileen harreran hartu beharko da)
- **Autokarabana parkina:** Danobat enpresa zaharreko parkingean
- **Zoru gogorra:** Elgoibarko Olaizaga kiroldegian.

3. Egitaraua

LARUNBATA 2022.09.17

08:15tik 09:15etara: "Aventura" probako parte hartzaileetako harrera eta dortsalen banaketa. Bertan T1rako partehartzaileek erabiliko duten materiala ere jasoko du antolakuntzak.

09:30: "Aventura" probako azalpen teknikoa.

10:00: Debabarrenako VI. Raideko "aventura" probako irteera.

10:30: "Familiar" probako azalpen teknikoa.

11:00: "Familiar" probako irteera.

13:00: "Familiar" probako helmugaren itxiera.

17:00: "Aventura" probako helmugaren itxiera

18:00: Bazkaria Debako alamedako pasealeku estalian.

18:45: Debabarrenako VI. Raidaren Sari banaketa.

4. Taldeak eta kategoriak

Talde bakoitza bi pertsonaz osatua egongo da eta ondorengo 3 kategoria definitu dira:

- **Gizonezkoa:** 2 gizonez osatutako taldeak.
- **Emakumezkoa:** 2 emakumez osatutako taldeak.
- **Mistoa:** Emakume eta gizon batekin osatutako taldeak.

Puntu gehien eskuratzen dituen taldeak irabaziko du. puntu berdinak eskuratu ezker, denbora hartuko da kontutan. puntu eta denbora berdina izan ezker, baliza gehien hartu dituen taldeak irabaziko du.


Kategoria bakoitzeko lehen 3 sailkatuentzat sari berereziak izango dira. Horretaz aparte, partehartzaile guztien artean, kirol materiala eta bertako produktuen zozketa egongo da.

Debabarrenako lehen sailkatuentzat ere sari berezia egongo da.

5. Dinamika eta probaren puntuazioa

Irteera ematen den momentua, talde bakoitzak bere mapak hartuko ditu. Pertsona guztientzako egongo da mapa bat. 4 mapa egongo dira persona bakoitzeko, Trekking-eko 2 sekzio eta btt-ko beste 2 egongo dira. Irteera ematen denetik, 7 ordu izango ditu talde bakoitzak ahalik eta puntu gehien eskuratu eta metara iristeko.

Sekzioak ordenean egin beharko dira, S1etatik hasi eta S4rarte. Gogoratu ez dela egongo derrigorrez hartu beharreko balizarik. Hori bai, sekzioen zabalera eta itxiera orduak kontutan hartu beharko dira estrategia egiterako orduan.



Baliza bakoitzeko puntuazioa zailtasun fisiko, tekniko, distantzia edo edertasunagaitik egongo da definituta. Sailkapena talde bakoitzak hartu dituen puntuen arabera izango da, lehen esan bezala. puntu berdinak eskuratu ezker, denbora hartuko da kontutan. puntu eta denbora berdina izan ezker, baliza gehien hartu dituen taldeak irabaziko du.


6. Informazioa tekniko

Ondoren, 6. Debabarrena Raideko informazio tekniko guztia:

A. Sekzioak, mapak, distantziak eta desnibelak:


4 Sekzio ezberdin egongo dira:

- 1. sekzioa: trekking-a + proba bereziak. **(Mapa A3. Eskala 1:10.000)**
- 2. sekzioa: Btt **(Mapa A3. Eskala 1:12.500)**
- 3. sekzioa: Trekking. **(Mapa A4. Eskala 1:10.000)**
- 4. sekzioa: Btt + proba bereziak. **(Mapa A3. Eskala 1:15.000)**



Sekzio bakoitzak bere mapa izango du, non bideak, balizak, transizioak, proba bereziak, hala nola sestra-kurba (ekidistantzia 5m), errekek eta beste elementu garrantzitsu batzuk adieraziko diren. Orientazio sinbologia espezifikoa erabiliko da mapetan. Hala ere, ez dira detalle guztiak agertuko. Bakarrik proba burutzeko garrantzitsuak eta lagungarriak izan daitezkeenak. Hemen adibidea eta leyenda:

LEYENDA	
	Autovia / Carretera asfaltada
	Pista ancha (>3m.) buen estado
	Pista o carril irregular (< 3 m.)
	Camino bien visible (1-2 m.)
	Senda (<1m.) / discontinua
	Edificios / casas / ruinas
	Linea alta tensión / torreta.
	Linea eléctrica / poste.
	Valla infranqueable (> 1.5 m)
	Valla franqueable / rota
	Fuente / arroyo o acequia
	Charca, lagunas o lagos.
	Zona pantanosa ± franqueable
	Foso o agujero / peligroso
	Rocas ±1m / grande / grupo
	Zona de bloques / de piedras
	Masa rocosa / afloramiento plano
	Cortados pasables/ impasables
	Curvas de nivel
	Curva maestra / curva auxiliar
	Arboles y matorrales aislados
	Talud, terraplén o terraza
	Surco o arroyo / profundo
	Colinas pequeñas / montículo
	Depresión ± grande / pequeña
	Muro de tierra / de piedra
	Propiedad privada prohibida
	Terreno abierto / semiabierto
	Abierto / semiabierto irregular
	Bosque: carrera rapida/lenta
	Bosque: muy lenta/dirección
	Veget. baja: lenta/muy lenta
	Veget. impasable / sembrado
	Olivos o almendros / viñedos
	Límites de vegetación / cultivo
	Elementos especiales.



Mapak papela iragazgaitzean inprimatuko dira. Hau dela eta, ez dira urratuko, ezta apurtuko ere sastraka, euria edo izerdiarekin.

1. sekzioa: Trekking-a + proba bereziak. (Mapa A3. Eskala 1:10.000)

- Distantzia / *distancia*: 14km
- Desnibela / *desnivel* (+/-):700m

Sekzio zirkularra, irteera-helmuga transizioan (T0) hasi eta bukatuko dena. Sekzio azkarra izango da. korrika egiteko aukera handia egongo baita, orokorrean, terrena bide eta pista onak izango direlako.

2 proba berezi egongo dira sekzio honetan, PE1 – Ingurunearen ezagutza eta PE2 – Espeleologia. Ondorengo apartatuan azalduko dira.

2. sekzioa: Btt. (Mapa A3. Eskala 1:12.500)

- Distantzia / *distancia*: 11km
- Desnibela / *desnivel* (+/-): 540m+ / 350m-

Sekzio lineala, irteera-helmuga transizioan (T0) hasi eta T1 transizioan bukatuko dena. Ibilbidea mozteko aukeraren bat izango da, nahiz eta ibilbide lineala izan.

3. Sekzioa: Trekking. (Mapa A4. Eskala 1:10.000)

- Distantzia / *distancia*: 13km
- Desnibela / *desnivel* (+/-): 800m

Ibilbide zirkularreko trekking sekzio honek 1. transioan irten eta bertara bueltatzea izango du helburu (T1). Lehen sekzioko baino ibilbide motelagoa eta orientatzeko zailtasun handiagoa eukiko duena. Baliza bat kobazulo baten barruko galerian egongo da, beraz, frontala behako da baliza hau hartzeko.

4. Sekzioa: Btt + proba bereziak. (Mapa A3. Eskala 1:15.000)

- Distantzia / *distancia*: 24km
- Desnibela / *desnivel* (+/-): 700m+ / 890m-

Sekzio lineal honek 1. transioan irten eta helmugara iristea izango du helburu (T0). Sekzio lineala izan arren, bukle ezberdinak ditu eta hori dela eta ibilbidea mozteko aukera handiak izango ditu.

3 proba berezi egongo dira, PE3 – Eskalada, PE4 – Rapela eta PE5 – Igeriketa. Ondorengo sekzioan azalduko dira.

B. Proba bereziak:

PE1: Ingurunearen ezagutza. (1. sekzioa)

Izenburu ezberdinekin 5 panel egongo dira mapan PE1 bezala adierazita egongo den leku konkretu baten. Bikote bakoitzari panel bateko izenburua emango zaio sekzioaren irteeran. Bigarren sekzioa hasi aurretik, T0 transizioan, antolatzaileek bi galdera egingo dizkio bikoteari panel horren inguruan eta bikoteak erantzun zuzenak eman beharko ditu proba honen puntuak eskuratzeko. Papela eta boligrafoa eraman ahalko da panelean dagoen informazioa jasotzeko.

PE2: Espeleologia. (1. sekzioa)

Mapan PE2 bezala adieraziko den puntuan, koba bat egongo da. Koba lineal bat izango da, bi trepe/destrepe eukiko dituen. Helburua, kobaren amaieran dagoen balizara iristea izango da eta sartu den leku beretik irten beharko da. Bikoteko bi partaideek burutu beharko dute proba.

PE3: Eskalada. (4. sekzioa)

PE3 bezala adierazita egongo den mapako puntuan eskalada egin beharko du bikoteko partaide batek. Printzipioz, grado errazeko eskalada bat izango den arren, katu hankak eramatea gomendatzen da. Gainera, arnesa eta mosketoia ere eraman beharko du proba hau egingo duen pertsonak.

Kontutan hartu proba berezi honetan material espezifikoa beharko dela eta partehartzaileek gaineran eraman beharko dutela. (Ikus derrigorrezko materiala apartatua)

PE4: Rapela. (4. sekzioa)

PE4 bezala adierazita egongo den mapako puntuan rapel bat egin beharko dute partehartzaile guztiek. Arnasa, baga, 8a eta mosketoia ere eraman beharko da. Rapeletik bajatu ostean, bikoteko partaide batek eskalada egin beharko du eta bestea oinez igoko da bizikleta utzitako lekura.

Kontutan hartu proba berezi honetan material espezifikoa beharko dela eta partehartzaileek gaineran eraman beharko dutela. (Ikus derrigorrezko materiala apartatua)

PE5: Igeriketa. (4. sekzioa)

PE5 bezala mapan adierazita egongo den lekuan, igeriketa proba bat egin beharko da. Distantzia jakin bat urpean igeri egiten burutu beharko du bikoteko partaide batek, eta ondoren igerian egin beste distantzia jakin bat. Irteera puntura bueltatutakoan, beste bikoteko partaideak gauza bera egin beharko du. Biek proba burutzean eskuratuko dira puntuak. Bainujantzia eta toalla erabili nahi izanez gero, gainean eraman beharko da material hau.

C. Beharrezko material:

Taldeko:

- Botikina: Esparadrapo, Gasak, Benda, Antiseptikoak, Analgesikoak, Antiinflamatorioak
- Telefono mugikorra
- Iparrorratza Erlojua

Partaideko:

- Haize zein euritarako jaka
- Camelback zein kantiplora (gutxienez 1 l.koa)
- Material guztia eramateko motxila
- Tapaki termikoa
- Txilibitua
- Buff edo kapela

Ekintzetarako:

TREKKING:

Goian aipatutakoaz aparte, belaunetararteko mediak gomendatzen dira.

BTT

- Konponketarako kit bat
- Mendiko bizikleta
- Homologaturiko kasko bat

PROBA BEREZIAK

PE2: Espeleologia:

- Frontala
- Kaskoa (bttkoak balio du)

PE3: Eskalada: (Pertsona bakarra bikoteko)

- Arnesa
- Kaskoa (bttkoak balio du)
- Mosketoia
- Katu-hankak (EZ beharrezko baina gomendagarria)

PE4: Rapela: (Partaide guztiek)

- Arnesa
- 8a edo descendedorea
- 2 Mosketoi
- Baga
- Kaskoa (bttkoak balio du)
- Guanteak (bttkoek balio dute)

Beste proba berezietan ez da derrigorrezko materialik izango.

Debakaturiko materiala

- Komunikazio tresnak (walkie talkie)
- Nabegazio sistema elektronikoak (GPS)

D. Transizioak eta logistika:

Antolakuntzak partehartzaileei materiala T1 trantsiziora gerturatuko die.

Harrera eta dorsa! banaketa: Debako Alamedan izango da. Bertan partehartzaileei poltsa emango zaie, dorsala, roadbook-a eta beste material batzuekin. Honetaz aparte, T1 transiziora eraman beharreko materiala ere jasoko da.

Irteera-helmuga (T0): Irteera eta helmuga, Debako Alamedan izango da. Ano postu bat ere egongo da bertan. Bizikletak uzteko lekua egongo da eta behar izanez gero, partehartzaileek maleta/poltsa/motxila-ren bat utzi ahalko dute arropa, jana edo beharrezkoa irizten dioten materialarekin.

1. trantsizioa (T1): Irteera-helmuga (T0) transiziotik hainbat kilometrotara egongo da. Ano postu bat egongo da bertan. Antolakuntzak S3ko trekking-eko materiala bertaratuko du. Horretarako, partehartzaileek jasoko duten poltsan etiketa bat egongo da dorsal zenbakiarekin. Etiketa hori, partaideek antolakuntzari entregatzen dioten motxila/maleta/kaxan jarri beharko da.

Proba bereziak: Materiala behar den prba berezietara, partehartzaileek soinean eraman beharko dute beharrezko material.

E. Kronometrajea:

Sportident* sistema erabiliko da eta ez da deskargarik egingo probak irauten dituen bitartean. Pintzarik euki ezean, izen ematean adierazita antolakuntzak utziko du.

*Sportiden pintza baduzu, ondorengo modeloak onartuko dira: Si-6, Si-9, Si10, Si-11 eta SIAC (50 kontrol pikatzeko edukiera)



F. Penalizazioak:

Sekzioa bakoitzeko itxiera ordutik kanpo iristeak, sekzio guztiaren puntuak galtzea dakar. Helmugara berandu heltzeak, S4ko, azken sekzioko puntuak galtzea ekarriko du.

Helmugara 17:30ak baino beranduago iritsi ezker, kontroletik kanpo iritea suposatuko du eta hortaz, taldea deskalifikatua izango da.

Beharrezko material guztia ez daraman taldeari, 6 puntuko penalizazio bat ezarriko zaio.

G. Anoak:

2 ano puntu egongo dira.

Lehena, irteera-helmugan kokatua egongo da (T0) eta bigarrena, 1. transizioan (T1)

Ura, edariak, fruta, fruitu lehorran, txokolatea... egongo dira.

Proba amaitzean bazkaria egingo da alamedako pasealeku estalian.

H. Roadbooka:

Proba baino egun bat lehenago roadbooka argitaratuko da. Partehartzaileek jasoko duten poltsan ere banatuko da.

Anexo I: Modelo de condiciones de participación a firmar por los participantes.

Condiciones de Participación en el Raid Debabarrena.

1. Conocemos y aceptamos íntegramente el Reglamento del Raid Debabarrena.
2. Somos conscientes de que este tipo de competiciones, al desarrollarse en el medio natural, en lugares de difícil control y acceso, lleva implícito un riesgo adicional para los participantes. En virtud de ello, asistimos a voluntad e iniciativa propias, siendo conscientes y asumiendo los riesgos y consecuencias inherentes a nuestra participación en esta prueba.
3. Acudimos con la preparación que requiere la competición, gozamos de buena salud general, sin padecer enfermedad, defecto físico o lesión que pueda agravarse con nuestra participación. Si durante la prueba, sufriéramos algún tipo incidencia que pudiera perjudicar gravemente nuestra salud o suponer un alto riesgo para nuestra integridad física, lo pondremos en conocimiento de la organización lo antes posible.
4. Poseemos una variedad suficiente de capacidades físicas, destrezas técnicas y recursos de supervivencia como para garantizar nuestra propia seguridad en las distintas disciplinas y pruebas especiales de este evento, bajo las condiciones de autonomía en las que se desarrollan. Igualmente, disponemos del material deportivo y de seguridad exigido para las distintas modalidades en que intervendremos; se encuentra en buen estado, está homologado y sabemos utilizarlo con propiedad.
5. Conocemos y dominamos los protocolos de seguridad estipulados para cada disciplina en la que vamos a intervenir, comprometiéndonos a cumplir las normas de seguridad establecidas; así como, a mantener un comportamiento responsable que no aumente en sobremanera los riesgos para nuestra integridad física.
6. Nos comprometemos a seguir las pautas generales de respeto al medio ambiente que relacionan.
7. Autorizamos a la organización a utilizar cualquier fotografía, filmación o grabación que tomen siempre que esté exclusivamente relacionada con nuestra participación en este evento.
8. Autorizamos dar nuestros datos de contacto a las pruebas que se encuentra dentro de la LIga Norte de Raids de Aventura (LINRA). SÍ NO

Raider 1:

Raider 2:

DNI raider 1:

DNI raider 2:

Firma raider 1:

Firma raider 2:

Relación de Pautas Generales de Respeto al Medio Ambiente

- Utilizar el número mínimo de vehículos posible y aparcar en lugares autorizados.

- Circular con prudencia por pistas y carreteras abiertas al tráfico.

- Circular despacio en presencia de personas, animales u otros vehículos.

- No producir alteraciones en los procesos y en el funcionamiento natural de los ecosistemas.

- No deteriorar los recursos bióticos, geológicos, culturales o, en general, del paisaje.

- Sortear o evitar las zonas medioambientalmente sensibles.

- Realizar las necesidades fisiológicas en los lugares adecuados o, en todo caso, fuera del agua y lejos de puntos de paso o reunión de personas, ni en lugares rocosos.

- No utilizar jabones ni detergentes en las fuentes o en los cauces con agua.

- No encender fuego ni provocar situaciones de riesgo de incendio.

- No utilizar o instalar ningún tipo de estructura o elemento que deje huella permanente en el medio.

- No verter ni abandonar objetos o residuos sólidos o líquidos fuera de los lugares habilitados.

- Retirar y trasladar todos los elementos y residuos producidos en las zonas de asistencia, salida o meta.

- No abandonar restos de materiales, envoltorios o alimentos utilizados durante la competición.

- Realizar el recorrido produciendo el menor ruido posible.

- No perturbar la tranquilidad del espacio o a la fauna doméstica o salvaje.

- Respetar el mundo rural, los derechos y costumbres locales.

- Dejar las cancelas, verjas, cadenas o similares en la misma situación que se encontraron.

- No invadir propiedades privadas o prohibidas a lo largo del recorrido.